

Gure eskemari amaiera eman diogu. Lortu al dugu nahi genuena? Helburu nagusia baloratzeke unea da. Mintzaira zen xede, jomuga; trebatu al dira? Hizkuntzaren zenbait puntu—hiztegia, esaldien ordena...—finkatu al dira?

Hasiera eta bukaera lotu beharrean gaude. Irakasleak ariketa hauek burutu dituenean, zatika-zatika atzeman dituen helburu txikiak orain borobildurik eta hedaturik aurkitu behar ditu, nahiz eta jakin ikasle guztiek ez dutela erantzun berdina eman, nahiz eta askotan ustegabeen aldaketa bat baino gehiago egin beharra izan den.

* * *

5. OHARPENAK

1. Komikietan testua eta grafikoa batera datoz normalki, eta ni ere era honetako komikia aztertzen saiatu naiz. Baina badira testurik gabeko komikiak, euskararen metodologian asko erabiliak, edo nahasitakoak, hots, testu amaierarik gabekoak, grafikoa osorik eduki arren. Era askotakoak, beraz.

2. Hemen ez da ezer esan komikiaren *egileari* buruz. Hala eta guztiz ere, ahal dadin egogoretan, oso interesgarria da harekin harremanetan jartzea —nola egin duen galdetuz, zenbat denbora behar izan duen, zer bilatu duen komikiarekin, nori zuzentzen dizkion komikiak, eta hau konkretuki nori zuzendu dion, zertan ari den pentsatzen komikia burutzen dagoenean, nola aukeratzen dituen jokalaria etab.—. Ariketa bizi-bizian, aurrez-aurre, eginez gero, aurreko pauso guztiek eman ezin izan dioten osotasuna eskainiko liokete, komikiaren mezu ez-kutua agertaraziz agian.

3. Hemengo lerroetan aztertu dudana komikia oso laburra izan da. Nik gehiago esango nuke, hots, gertakizuna komikia baino gehiago izan dela. Hala eta guztiz ere, analisia egiteko eman diren pausoak baliagarriak dira beste kasuetarako.

4. Ez ahantzi, bukatzeko, hasieran esan dudana, hau da, komikia bi ikuspegitik har daitekeela; beraz, bi helburu ezberdin betetzeko: entretentzeko, eta orduan ondorengo ariketak sekundarioak dira, edota ikastunitate baten ardatzean aritzeko, orduan hain zuzen ere prozedura baten pean jartzen da. Hori da nik eskaini dizuedana.

Joxe Erzibengoa

«CUISENAIRE» ERREGLETEN BIDEZ ISTORIOAK KONTATU

Mintzamena era askotan lan daiteke. Era guztiok beharrezko bezain probetxugarriak izanik, lerroetan euskararen irakaskuntzan erregletez baliatzeko iradokizun batzu proposatzen ditut. Mintzamena eratzeko sistema ernagarria daitekeela bait deritzot. Eta mintzamena ez ezik, idazmena ere antzeko bidetik abia liteke.

1. ERREGLETAK ERABILTZEKO ARRAZOI ZENBAIT

- Erabilpen anitzeko materiala

Erregletak ikusizko baliabideak dira. Oso baliabide irekiak, erabilpen anitzekoak, alegia. Hain material irekia izateagatik gertatzen da, hain zuzen, ikaskuntz maila arras ezberdinetan direla erabilgarri.

- **Beharrezko euskarri**

Gehienetan ikasleak hizketan jartzeko ez da nahiko «nahi baduzue, gaur politikari honi buruz hitzegingo dugu» edo gisa horretako zerbait esatea. Horrek porrota besterik ez luke ekarriko. Mintzatzen lagunduko dion marko erreferentzial bat behar du ikasleak. Hori erregletak eman dezakete, horrela mintzamenari ekiteko, benetazko euskarrian bihurtzen direlarik. Erregleten bidez kontu daitezkeen istorioen interpretazioak joko dextente eman dezake ikaslearen arteko solasak sortzeko eta komunikazioan nahitaz gertatzen diren etenaldiei aurre emateko.

- **Hizkuntz produkzioaren eragile**

Ikasgaiko etapa sortzailean irakasleak hizkuntzarekiko duen kontrolak indarra galdu egin beharko luke ikasleak ikaste bidean aurrera joan ahala. Etapa manipulatioetan hauek sortzailerik bezain beharrezko izanik ere, irakasleak nahi duenaren oihartzuna entzuten da ikaslearen hitzetan. Erregletak, berriz, hizkuntz produkzioa baldintzatu baino areago eragin egiten dute. Baliabide hauen ezaugarri bat dela medio, beren indeterminazioa edo zabaltasuna estimulazio-iturburu aparta gerta daiteke.

- **Elkarrekintzaren bultzatzaile**

Lehenengo, ikasle bakoitzak taldeka hitzegiteko aukera du. Hurren, eskolako beste ki-deekin. Berak egiten du solasa, ez irakasleak.

- **Motibazioaren pizgarri**

Irudimena gustuko duten taldeek etekin handia atera dezakete esperientzia honetatik, sortze lanaren menturan murgildu beharra bait daukate. Gainera, talde bakoitzak istorio ezberdinak sortzen dituenek, eskola osoarekin gerora egingo den istorioen interpretazio-lana eragarrria izango da. Bigarrenik, ikasleentzat badu zentzurik ekintza honek, hitzegiteko arrazoia bai bait daukate. Edozein istorio asmatu ahal izateko entzun, galdetu, konparatu eta justifikatu egin beharko dute. Hirugarrenik, arestian esan dudanez, elkarrekintzarako aukera ere eman dezakete. Azkenik eta, aipagarriena beharbada, zera da: ikasleak bere errekurso linguistikoz baliatu behar duela. Berak dakienaz aurrera egiteko gai dela ikustea oso garrantzi handiko esperientzia da, hori bait da bere lanaren ordaina.

2. ISTORIOAK KONTATU

Orain kontu kontari aritu ahal izateko aintzakotzat hartu behar diren elementuak aipatuko ditut.

2.1. Helburuak

Irakasleak ariketaren bidez lortu nahi duena definitu egin behar du. Nik aipatzen ditudan helburuetako bat edo beste lortu nahi dugunaren barnean egon liteke:

- lehenaldiaren erabilera
- hipotesien formulazioa: *ote/omen* elementuen lanketa
- ondorengo bi hizkuntz funtzio garrantzi handiko hauek praktikatzea: informazioa eskatu eta eskaintzea
- hizkuntz mezu ulergarriak ahal den jartotasunik haundienaz eraikitzea
- nor bere repertorium linguistikoz baliatzea

2.2. Baliabideak

- Erregletak (eskoletan haurrei nozio matematikoak irakasteko erabiltzen diren horietakoak).
- Arbela.
- Blue-tack (plastilinarekin antzeko materiala da, eransten dena; iraupen luzeakoa, erabili ondoren berreskuratzen egiten bait da).

Hala ere, baliabide horiek eskuartean ez daudenean, honako hauek erabil litezke:


- Kartulinazko erregletak (kolore eta tamaina ezberdinetako errektanguluak).

- Blue-tack / buruorratzak.
- Flanelografoa.

Talde bakoitzak erregleta-joko bat beharko du. Ikasleek berek har lezakete parte materialaren prestakuntzan.


2.3. Prozedura

- Ikasleak giroan sartu (aukerapekoa).
 Eman dezagun ikasleak beldurrezko istorio bat asmatzea nahi dugula. Lanari hasiera eman baino lehen, irakasleak zera esan lezake: «Gustatzen al zaizkizue beldurrezko istorioak? Hitzegin horretaz minutu batzutan: ikusi dituzuen filmeak, irakurri edota beste entzundako istorioak...».
- Giroan sartzeko era asko dago. Istorio baten bukaera asmatu behar baldin badute, irakasleak ipuinaren munduan sartu beharko ditu beste ezerekin hasi aurretik.
- Eratu eskola lauzpabost kidetako taldeetan.
- Talde bakoitzari erregletak banatu (kolore bakoitzeko bost erregleta, adibidez).
- Arbelean honako marrazki hau egin:



Klabea

- Azaldu ikasleei lauki bakoitza biñeta dela eta komiki banda bat osatzen ari direla. Haiek, taldeka eta erregleten bidez, istorio bat asmatu behar dute. Klabeari dagokion tokian, istoriako pertsonaien (bizidunen eta bizigabeen) azalpen laburra egin behar da. Adibidez:



- Orain, talde bakoitzak, txandaka, bere istorioa «kontakten» du, ez ahotsez, erregleten bidez baizik.
- Beste taldeetako ikasleek arbelean jarritako istorioa interpretatzeari ekiten diote, horretarako asmatzaileei galderak eginez.
- Hurren, beste talde baten istorioaren interpretazioa egingo da, guztiek bukatu arte. Honen ez du esan nahi guztiak egun batean egin behar direnik.

2.4. Aldaera batzu

- Lehenaldian kontatu eta gero orainaldian egin.
- Ariketa zailagotu nahi izanez gero, biñeta gehiagoko komiki-banda bat ematea besterik ez dago edota elementu gehiagoko istorioak asmatzea.
- Istorio jakin baten interpretazioa aurrera joan ahala, irakasleak nahi duen adina bider esan diezaieke hasierara itzultzeko eta orduarteko narrazioa berresan erazi. Narrazioaren eraketa amaitutakoan, arbelean idatz liteke.
- Istorioaren une berezi batzutan ikasleengandik pertsonaien arteko elkarrizketa elizitatu.

- Narrazioaren eraiketa osoa egin, narratzaile, elkarrizketa eta guzti.
- Ikasleek, antzeko bi komiki-banda aurrean dituztelarik, bi istorioren arteko aldeak aurkitu behar dituzte.

2.5. Noiz erabili

Ikasgaiaren etapa sortzailetarako da onuragarria ariketa hau, ikasleek hizkuntza libreki erabiltzea lortu nahi dugu eta.

2.6. Maila

Ariketa zailtasun maila ezberdinetakoa izan daiteke, baina beti taldearen ezaugarriei egokituta. Hala ere, gutxiengo ezagupen linguistiko bat beharrezkoa dela deritzot ariketa probetxuz egiteko. Beraz, ez da hain aproposa izango beheko mailetan, egoera honetako ikasleek etapa sortzaileetan ere input linguistikoarekiko nolabaiteko kontrola behar bait dute. Hori lortutakoan bai, erabil ditzakegu erregletak. Baldin eta ikasleak informazioa nola eskatu, gertatzen ari denaren berri eman, laguntza eskatzen ez badaki eta itsasoarekiko nozio garrantzitsuren jabe ez bada, hala nola, «itsasoratu», «mareak» («itsasgora», «itsasbehera»), «lehorrera itzuli», «ontzia», «ontziaren lekuri inportanteenak», «hondoratu», «ipar izarra», «ilargia», «eguraldia» («ekaitza», «tximista», «trumoia», «euria», «haizea», «haizearen abiadura-indarra»)... hondorapenei buruzko istoriorik ezin asma daiteke noski. Baina irakasleak ikasleek osagaiok hartzaile mailatik sortzailekora pasatzea nahi baldin badu, hondora joan den ontziari buruz egingo duten istorioetan elementu hauek erabili behar dituztela esango die giroan sartzeko unean, nolabaiteko kontrola ezarritik. Aldiz, sortzaile gisa erabiltzeko gai izango balira, irakasleak nahi izanez gero, ikasleengandik elizita litzake.

3. ADIBIDE BAT


Aurreko 2.3. puntuan, ikasleak istorioak asmatzeari ekin aurretik ariketaren giroan sartzeko komenientzia aipatu dut. Beraz, nola edo hala ikasleen irudimena suspertu egin behar da.

Hemen esaten dudana hori lortzeko bideetako bat da. Irakasleak egunkaririk harturiko pasarte, parrafo, esaldi, atsotitz... bana emango dio talde bakoitzari. Nahi izanez gero, 15 × 10 zentimetrotako fitxak dira oso aproposak aipaturiko ebakinak eransteko fitxa bakoitzeko ebakin bat bakarrik. Ebakin hauek irudimenaren pizgarri besterik ez direnez, interpretapen zein istorio guztiek balioko dute. Hori bai, ikasleei gogorarazi beharko zaie ez dutela ebakinen zehaztasunetara makurtu beharrik. Eta talde batek tokatu zaion materialarekin zailtasunik balu, fitxa hori utzi eta beste bat hartu besterik ez du.

Artikulu hau bukatzeko eta adibide gisa, talde baten istorioa aurkeztuko dut. Talde honi fitxa hau eman zitzaion:

<p>Diotan erri ortan, Ormaiztegi'n, ezagutu nun bertako itxua, geltokiko andenean, bere esku-soñua jötzen zer bait diru-laguna. Aza bildu asmoz.</p>
--

Lana burutu ondoren hau izan zen emaitza:



- Lehenengo biñetan itsu bat tren-geltoki baten ondoan eskusoinua jotzen eta eskean ari da.
- Bigarrenean emakume aberats bat trenetik atera da.
- Hurrengoan emakume hori itsuarengana doa.
- Azkenean, diru asko jaso duela konturatuz, saltoka eta jauzika hasten da pozez gainezka, eskusoinua botata.

Istorio honek, sinpleegia izan arren, ildo honetatik abiatuz gero, era askotariko posibilitateak daudela adierazten digu. *Cuisenaire errepletak* zenbait koloretako egur zati baino gehiago dira. Bestela, proba egin.

Joanba Bergara

«TALDE BEREZI» IKASTAROAK DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO IRAKASLE ESKOLAN

• Euskalduntze taldea

Elizbarrutiko O.H.O.eko Irakasle Eskolak azken urteotan antolatu dituen «talde berezi» ikastaroak aurreneko aldiz 1979-1980 kurtsuan hasi ziren, ikastaro hauen jaiotze arrazoiak eskola honetako ikaslegoaren euskara maila hobetzean oinarrituz.

Hasiara batean ikastaro hauek osatzeko, zenbait gai, eta euskara soilik, ematen zen. Urteetik urtera irakasle kopurua jaitsez joan ahala, euskara beraren maila ere beherantz joan da. Hori dela eta, azken lau urteetan zehar talde berezia sendotzea eta lau hilabetez eta egunean bost orduko saioak ematea erabaki zen.

Jarrera honekin talde berezian sartzan den ikaslegoaren plangintza, aurreneko euskara ikastaro hau egin ondoren, magisteritza eskolak (euskaraz ematen diren gaiak) normaltasunez jarraitu ahal izatean oinarritzen da.

Hau burutu ahal izateko ikasle hauentzako ikastarora hilabete lehenago hasten da eta hilabete beranduago bukatzen.

Lehenengo puntu aipagarriena ikasleen jatorria eta beraien ikastetxeetako hizkuntza ereduak aipatzea litzateke. Eskola hauetako gehienek A ereduari jarraitzen diote, hau da, euskara gazteleraz irakasten da bigarren hizkuntza bezala. Honen zeregina euskara gramatikalki besterik ikasten ez dutenean datza. Aipa daiteke, era berean, ikasle batzuk herri euskaldunetatik etortzen direnez, ulermen maila bederen, landua dutela.

Konstatazio gisa aditzera eman genezake A ereduetakoko eskoletatik Magisteritza Eskola honetara datozen ikaslearen euskararen maila jaitsei egin dela urtetik urtera.

Gure eginbeharra horren ikerketan ez egon arren, ikasle hauen euskararekiko jarrera eta motibazioa ere nabarmen aldatu eta ahuldu egin da.